

ERAIKUNTZAREN KOIUNTURARI BURUZKO INDIZEA (EKI), 2005EKO 4. HIRUHILEKOA

Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzaren sektorea %8,3 hazi zen 2005eko laugarren hiruhilekoan


Datu horien arabera, urteko hazkunde metatua %8,0koa izan zen

EUSTATen datuen arabera, eta lan-egutegi homogeneoari dagokionez, 2005eko laugarren hiruhilekoan Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzaren sektorea %8,3ko hazkunde nominala izan zuen 2004ko laugarren hiruhilekoaren aldean. 2005. urte osoan, aurreko urtearen aldean, %8,0 hazi zen.

Hiruhilekoak alderatu ahal izateko estazionalitate-ondorioak zuzendu dira eta ondoren ikusi da 2005eko hirugarren hiruhilekoaren aldean laugarren hiruhilekoko eraikuntzaren jardura %3,3 hazi zela; gainera, aurreko hiruhilekoko hiruhileko arteko tasaren gainean pixka bat azeleratu zen (%2,8).

Euskal Autonomia Erkidegoko Eraikuntzaren Koiunturari buruzko Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabeteka

% hazkundera



Iturria: Eustat

Eraikuntzaren sektorea 2005eko laugarren hiruhilekoan izan zuen bilakaerak euskarri bi izan ditu: bata, garrantzitsuena, Obra zibilaren azpisektorea izan da %10,2ko urte arteko igoerarekin, eta bestea Eraikuntzaren azpisektorea, %7,5eko igoerarekin. Metatutako kopuruari dagokionez, aitzitik, kontrakoa eman zen: eraikuntzak %8,8ko igoera izan zuen urte osoan eta obra zibilak %6,1ekoa.

Hiruhileko artean, sektoreak 2005eko laugarren hiruhilekoan izan zuen jarduera 2005eko hirugarren hiruhilekokoarekin alderatuz gero, obra zibilaren azpisektoreak bilakaera positiboa izan zuen (%7,6) eta eraikuntzak hiruhileko arteko hazkunde neurrizkoagoa izan zuen (%1,5).

2005eko laugarren hiruhilekoan, eraikuntzaren sektoreko enplegua %2,0 gehitu zen urte bereko aldi beraren aldean; hiruhileko artean, 2005eko hirugarren hiruhilekoaren aldean, %0,7ko hazkundera izan zuen sektoreak.

Taula: 2005eko 4. hiruhilekoa. Euskal Autonomia Erkidegoko Eraikuntzaren Koiunturari buruzko indizearen aldakuntza-tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	4.hir.05/4.hir.04	At/At-1 (1)	4.hir.05/3.hir.05	3.hir.05/2.hir.05
Produkzioaren indizea	8,3	8,0	3,3	2,8
Eraikuntza	7,5	8,8	1,5	2,0
Obra zibila	10,2	6,1	7,6	4,9
Landunen indizeak	-	-	0,7	0,4

(1) t urteko urtariletik azken hiruhilekora arte metatutako aldiaren urte arteko aldakuntza-tasa da, t-1 urteko aldi berberarekin alderatuta.

Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp